



Datorren urtera arte...

TOLOSA ▶ Azken egunean koloreak eta mozorroak ere ezin faltatu; banaka nahiz taldeka jendeak amaierara arte gozatu du

HAUSTERRE EGUNA ▶ Gaur atsedenerako unea heldu da; Piñata igandean Inauterietako azken ekitaldiak izango dira ▶ 4-5



Azken eguna izanagatik tolosarrak bai eta kanpotarrak ere kalera atera ziren euren mozorroekin; orijinaltasuna nagusi izan zen guztietan. I. T. / N. G. / A. I.

Zezenaren adarren aurretik

Pattar zezenean ere jende ugari ▶ 6



Pailazoren bat ere ausartu zen zezenaren aurrean. i.g.

BIHAR EZ DA HITZA-RIK IZANGO

Zaldunita egunean lan egin zuen HITZAREN erredakzio taldeak, Inauteriei buruzko informazioa jaso eta horren berri emateko. Igandean lan egin zuenez, gaur, asteazkena, atsedenera hartuko du lan taldeak. Horregatik, bihar ez da HITZA kaleratuko. Etzi izango duzue berriro esku artean.

IPARRAGIRRE
SACARROTEGIA

20 eta 24 euroko menuak HITZAREN eta OSTEGUNETAN

Osiñaga auzoa / Hernani 943 55 03 28
Asteazkenetik larunbatera gauz zabalik, larunbat eguerdian ere bai
www.iparragirre.com



Buruhandi eta Erraldoiak Tolosan

ARGAZKI ZAHARRA ▶ Bukatu da, bukatu da... Amaitu dira 2007ko Inauteriak eta harekin batera jaietan herria apaintzeko erabili ohi dituzten osagarri guztiak. Horien artean aurkitzen dira Tolosako Buruhandi eta Erraldoiak. Aurten ere izan dute bere tokia festetan eta larunbat goizean Tolosako kaleak zeharkatu

zituzen, musikaren gidaritzapean. San Joan jaiak heldu arte berriz ere ezkutuak izango dira orain. Aspalditik dator Tolosan Buruhandi eta Erraldoien usadioa —argazkian ikus daitezke—. 1923tik aurrera Udalak inori ez uztea erabaki zuen eta behin betiko Tolosan geratzea. JOSE MARIA TUDURI ESNAL "TOLOSA ARGAZKIAK"

RAFA CIVICO ▶ INAUTERIZALEA

«Elkartek garrantzia handia dute Inauterietan»

Joxemi Saizar. Rafa Civico Esnaola musikaria da, tronpeta eta tuba jo izan ditu batez ere eta musikari bezala bizi izan ditu urtetan zehar Inauteriak, Musika Bandan eta hainbat txarangaen joz. Ostegun Gizona du gustukoena eta elkarrean (Aurrerakoa da) garrantzia azpimarratzen du.

Nola bizi dituzu Inauteriak?
Txarangaen joz. Konpartsetan ez naiz atera, behin bakarrik pailazo bezala. Zaldunitan Alcoyanon eta Astelenitan Poca Tripan. Lehen aldiz Kabilan atera nintzen, baina soldaduskatik etorritakoan Alcoyanon hasi nintzen, gazteak eta lagunak ziren. Asteartitan San Esteban eta Kabi Alai txarangaen ere atera izan naiz.

Noiz hasi zinen musika jotzen?

Gaztetan, 18 urte nituela hasi nintzen tronpetarekin. Tronpeta baino lehen Rondalla Umore Onan laud-a jotzen nuen, Garaitek erakusten zigun eta gero ateratzen ginen. 60. hamarka-

dan atera nintzen, bost bat urte edo.

Norekin ikasi zenuen musika?

Solfeo ikasten Eduardo Mokoroarekin hasi nintzen umetan eta gero Azurzarekin. Hirugarren urtean edo utzi egin nuen eta 14 edo 15 urterekin berriro hasi nintzen. Orduan ez zegoen jende asko. Eskolatik atera ondoren ikasten genuen musika. Orain askoz ere jende gehiago ari da ikasten.

Exotik al datorrizu zaletasuna?

Bi osaba musikari nituen, amaren aldetik, Esnaolarrak, tronboia eta bajoa jotzen zuten orduko bandetan, Gure Txokoa eta horietan.

Eta Musika Bandan zenbat urte egin dituzu?

26 urte nituela sartu nintzen eta 61ekin utzi nuen, iaz. Danborrada eta Diana asko izan dira.

Zen garrantzia dute elkarrekin Inauterietan?

Handia. Ia sorreratik naiz Au-



HITZA

TRAGO BATEAN ▶

Egun bat? Ostegun Gizona oso polita izan da beti, herriko jendearena da, afaldu, atera, obligaziorik gabe lasai ibili.

Zer gustatzen zaizu gehien Inauterietatik?

Dena, batez ere musika. Beti mundu horretan sartuta egon naiz, norbaitek jo behar du!

Eta pieza aldetik?

Habanerak oso politak dira. Betidanik 8-10 jotzen dira gehien: Urdiña, Arco iris, Kabi Alai...

rerrerakoa eta Ostegun Gizeneko danborradan ere 25 urtetan atera izan naiz jotzen. Eta emakumeen ere bai. Elkartek garrantzia handia dute. Asko lagutzen dute giroa jartzen. Bestela desberdina litzateke. Amarrotzen bizi naiz eta afaltzera joan beharko banu, perezia izango nuke gero ateratzeko, berriro ez joateagatik. Ume txikiak genituenan gertatzen zitzaigun, afaldu eta gelditzen ginen. Hemen berriz bizi duzu gehiago, festaren erdian zaude.

Zer falta da musika aldetik?

Ezer ez. Errepertorioa jotzen da, baina txaranga batzuk ez daude prestatuta dena jotzeko. Gu bai, denak hemengoak garrelako, baina batzuk batzuk Pastelero, Isabelita eta Baratzako pikuak besterik ez dute jotzen.

Zer egin daiteke hori konponatzeko?

Txaranga bakoitza egun bakarrean ateratzea, eta ez bi edo hiru egunetan orain bezala. Askotan komentatu dugu. Musikari gehiago izango litzateke. Zertarako nahi duzu bost baino gehiago egunero?

Nola aldatu da Inauteria?

Asko, gazteria gehiago sartu da aisialdi taldeekin. Gehiago bizi dute Inauteria. Lehen hori ez zegoen. Blusa, txilaba eta kitto. ◀

PASADIZOA ▶

Duela hamarkada dezente, Karnabal hirugarrenen, lau tolosar elkartu ziren Parisen: Jesus Insausti 'Uzturre' sindikalista eta politikaria, Javier Bello Portu musikaria, Federico Zabala historialari eta senataria eta Donostian bizi zen sendagile bat. Elkarrekin pasatu zuten arratsaldea Inauteri kantak abesten jendearen harridurarako. Goizeko bostetan bukatu omen zuten Cafe de la Paix-en.

DATAK ▶

Egutegi judutarren arabera, martxoaren 20aren ondorengo ilargi beteari segitzen dion lehen igandea da berpizkunde igandea. Egun horri 7 aste kenduta Zaldunita eguna dugu:

2008. Otsailak 3.
2009. Otsailak 22.
2010. Otsailak 14.
2011. Martxoak 6.
2012. Otsailak 19.
2013. Otsailak 10.
2014. Martxoak 2.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

- ▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
- ▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39
- ▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
- ▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
- ▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361
- ▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
- ▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411
- ▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
- ▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720
- ▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
- ▶ **Orendain.** Medikua: 655595
- ▶ **Orexa.** Medikua: 682228
- ▶ **Tolosa.**

- ▶ Anbulatorioa, larrialdi: 461111
 - ▶ San Esteban: 006800
 - ▶ Gernikako arbola: 006900
 - ▶ Amaroako dispen.: 672637
 - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
 - ▶ **DYA:** 672536
 - ▶ **Gurutzte Gorria:** 674888
 - ▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970
 - ▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
- #### Garraioak.
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
 - ▶ Donostiako autobusa: 361740
 - ▶ Tolosaldea bus: 650621
 - ▶ Leitzarar autob.: 948 221015
 - ▶ Taxia: 670420
 - ▶ Taxia (Leitza): 608 873016
- #### Besterik.
- ▶ Ertzaintza: 538820
 - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
 - ▶ Tolargi: 650016
 - ▶ Iurrumendi egoitza: 670325
 - ▶ Tolosa gasa: 675320



TOLOSA ▶ BANAKAKO MOZORROAK



Alkoholemia kontrola ere jarri zuten Udaltxangoek San Frantzisko kale erdian. A.I.MAZ



Batzui paperean sartzea ez zitzaien asko kostatu. A.I.



Neska bikia hartu eta menditik kalera. A.I.



Pailazo bikia, alai motorrean. I.T.



Fidel indartsu oraindik. A.I.



Esku bakarraz jaso zuen sufrimendu handirik gabe. A.I.

Azken egunean ere herriko kaleak mozorroz bete dira

Konpartsez gain, banakako mozorro irudimentsu asko ikusi dira egunotan kaleetan zehar; atzokoan berriz, gutxik errepikatu zuten aurreko egunetakoa

A.I.MAZ-I.TERRADILLOS

Atzo Sardina Zaharra erreta, Inauterien aurtengo ibilbidea amaitu da dagoeneko. Azken egunean ere ez ziren falta izan

mozorro eta konpartsak. San Frantzisko ibiltokia eta Rondilla kalea inaute pasarela izan dira azken egun hauetan, bertan ikusi dira lan handien ondorengo fruituak eta baita az-

ken orduko imaginazioarenak ere.

Horrela, karrozak ez ezik, banakako hainbat mozorro ere kaleratu dituzte inauterizaleek: irudimentsuak oso, pertso-

naiak, egunerokotasuneko gaien ingurukoak edo ez, batzuk besteak baino landuagoak... Baina guztiak koloretsuak eta antzerkitxoak egiteko gutiz aproposak inondik ere, ba-

koitzak bere janzkeraren araberako papera betez: pailazoak, sorginak, txantxoak, mexikarrak, apaizak, ijitoak, udaltzaingoak... eta beste hainbat eta hainbat zer ziren ere asmatzea zaila zirenak, baina nolahi ere irudimentsuak guztiz.

Askok gainera, modako jantzien modura, errepikatu baino nahiago izan dute egunero mozorro berri batekin aterata kaleko pasarelara. Baina atzo izan zen azken desfilea, Sardina Zaharra erretzean itxi zuten pasarela, hemendik aurrera Astele nitak astelehen buruzuriak besterik ez dira izango. Itzuli da inauterien ondorengo ajea.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95



KARROZAK ETA KONPARTSAK ▶



Agur mozorroren festari!

N. GARZIA - I. TERRADILLOS

Bukatu direla aurtengoak ere. Batzuentzat konturatzerako igaroko ziren azken sei egunak, eta gehiagorako gogoz gertatuko ziren, beste batzuentzat, berriz, nahikoak izan dira, baina da, aseptua geratu dira eskualdeko festarik eronek eman dutenarekin. Kontuak kontu. Hausterre eguna da gaurkoa, edo beste modu batera esanda, ajearen eguna, askok eta askok deskantsatzeko baliabiko dutena.

Gaurkoaren aurretik, ordea, atzoko egunean jendeak ez zuen hutsik egin, eta koloretz, musikaz eta umorez bete zuten herriko kaleak. Hala, Zaldunetan ateratako karrozak eta konpartsek alaitu zuten Antzoki artifa ere. Goiz osoan, gainera, eguraldia alde izan zuten, baina hori bai, arretasidasa britai zen arte orduan pogoetik egin baitzuten euria.

Piñata igandeko ekitaldiek emango diote amaiera aurtengo Inauterietako egitarauri.



Ertzainak. Ertzaintzaren akademia berezia. i. t.



Pantoja. Albizkarietako pertsonaiak. n. s.



Gozogileak. Gozoak egiten. s. s.



Irratia. Gerra ondorengo garaietara eraman gintuzten beste hauek. n. usuz



Antzoki berria. Kafe Antzoki berrian emanaldi bereziaz gozatzeko sukera ere izan zen personalia hauek eskutik. s. reskolluz



lijtoak. Hauek ere geldialdia egin zuten Inauterietan. n. oaxa



Boxolariak. Ring gainean nahiz lurlean dantzari aritu ziren. n. s.



Troglodidak. Bazkari ederra egin zuten gizaki basati hauek. n. oaxa

LIZARBI
Kutxa, mahai, sukri etab.
Altzariak Zurgintza onokorra
Tolosaldea eta Leizaldea
San Esteban auzoa
Tel. Fax: 945 652 053 - 765.054

"Denok onar dezagula, naturaltasanez, Ionen elbarritasuna."

Ane, Elgeta.

Zuk horixe nahi duzu, eta gu horretarako ari gara lenean. **Kutxan** ong asko dabilgailo gur estean dituzuna entzuten, bihar zure nahik, guzuzenik. Kusi alai izan dituzan. Zuri oker ari bala, egunero garrantzi egin. **kutxaren** Gizarte-Bizitza.

zer nahi duzu bihar?

kutxaren 2007ko Gizarte Ekintza
76 milioi euro
1.200.000 emuridan
4.300 jarduneko Gijuzoon

- Osasuna
- Gizarte-Laguntza
- Elkartasuna
- Hezkuntza
- Ikertuntza eta Enplegua
- Kultura
- Aisialdia
- Ingurumena



www.kutxa.net

kutxa

zer nahi duzu bihar?

**PATTAR ZEZENA ▶**

'Gozatua'. Pattar zezenean ateratzeak ezustekoren bat izatea ekarri ohi du, batez ere adarra nahi ez den tokira joaten denean... I. GARCIA

TXOTX

Arratzain

Arratzain zahar baserria info@agroturismoarratzain.com
Tel.: 943 366 663 Usurbil

Oialume Zar

Mikel Arozamena bidea, 16 (autobus geltokitik gertu)
Tel.: 943 552 938 - 943 332 127 Astigarraga

Gartziategi

Gartziategi baserria
Tel.: 943 469 674 Astigarraga

Iparagirre

Osiñaga auzoa
Tel.: 943 550 328 Hernani

Urbitarre

Ergoiena auzoa
Tel.: 943 180 119 Ataun

Gurutzeta

Oialume bidea, 63 (sarrera Ergobia auzotik)
Tel.: 943 552 242 Astigarraga

Akelenea

Oialume bidea 57
Tel.: 943 333 333 Astigarraga

Lizeaga

Gartziategi baserria, Martutene pas. 139
Tel.: 943 468 290 Astigarraga

Elutxeta

Oztaran auzoa 34, Elutxeta baserria
Tel.: 943 556 981 - 943 333 337 Urnieta

Rezola

Santio Zeharra
Tel.: 943 552 720 - 608 143 332 Astigarraga

Larre Gain

Larre-Gain baserria, Ereñozu auzoa
Tel.: 943 555 846 - 616 287 867 Hernani



Adil Zezenak bizi aritu ziren, baina zezenzaleek ere tarteka saihestu zituzten adarkadak. I. GARCIA



Taula gainera. Asko saiatu arren, zezen bakarra igo zen plaza erdiko taulara... eta azkar hustu zuen. I.G.

iragarki laburrak ▶

LANA

Garbiketa. Jantokietarako sukaldia, eskolak. 943 444866

Gidaria. Erakunde publikoetarako. 943 444866

SALGAI

Autoa. BMW Ma. 286 zaldi. 1995 urtekoa. 153.000 kilometro. 18ko llantak eta sapaia. Egoera oso onean. 14.000 euro. 943 65 41 43.

ALOKAIRUAN

Pisua. Lekunberrin 60m2ko pisua alokatzen dut. Egongela, bainugela, sukalduea eta bi logela. Telefonoa: 679 20 14 60.

TOLOSA ▶ INAUTERIAK



Txikitxoanak. Euriak beldurtuta, gazteboena k aterpea zuten barraketan ibili ziren atzo arratsaldean, hauek izan zirelarik arrakasta gehien izan zutenak. E. EZEIZA



Tiro pitxioia. Urteak aurrera joanda ere, oraindik arrakasta du tiro pitxioiak, eta barraken ezinbesteko osagarri dira. E. EZEIZA



Herensugea. Umetxoak nahiz gurasoak jarri ziren herensuge ezagunaren gainean. E. EZEIZA

Geltokia haur parke erraldoi bilakatu da

Gaur Hausterre eguna, Inauterietako azken eguna denez, barraka guztiak erdi prezioan izango dira egunean zehar

ESTI EZEIZA

Atzo arratsaldeko euriak ez zituen umeen gogoak busti, eta gainontzeko egunetan bezala, haur parke handi bilakatu zen Tolosako geltokia. Haurtxoek

ongi pasatzen zuten bitartean, gurasoek begira, pazientziaz hartzen zuten itxaronaldia.

Herensugean, tiro pitxioan, zaldiko maldikoan... ibiltzeko aukera izan zuten gaztetxoek. Bestalde, gaur, jaiei amaiera

emateko, barraka guztiak erdi prezioan izango dira.

Jose Olinpio zornotzarra da barraketako postu baten jabe, Atracciones Amparo izeneko tiroi pitxioia, hain zuten. «Tolosako Inauterietan bezalakorik ez

dago», dio. Orain astebete geltokian hartu zuen *ostatu* eta Ostegun Gizenetik zabalik izan du barraka. Gaur Trintzerpe aldera doa, hango inauterietara. Txikitatik bizi izan du barraken giroa, «esan daiteke barrakak baten mostradore azpian jaio nintzela». Gizaldiz gizaldi igortzen den bizibidea da hori eta horren adibide da. Olinpioren alabak, ezkondu eta gero, horretan diharduela.

Atracciones Amparoko jabearen esanetan peluxeak dira tiro pitxioiko izarrak. Hala ere, urteekin aldaketak izaten dira, eta sariak modara egokituz doaz. Bizibide gogorra eta esker gutxikoa izan arren honekin jarraitzen dute bizkaitar horiek, eta segitzeko asmotan daude. Dena den, Olinpiok azaldu zuenez, askok eta askok lanbidea utzi eta kamioi gidari bezala dihardute egun.

'EGUNKARIA AUZIA' ▶



Lau urte beranduago ere... itxita

Erredakzioa ▶ Atzo bete ziren lau urte Guardia Zibilak Espainiako Auzitegi Nazionalaren aginduz Euskaldunon Egunkaria itxi zuenetik. Halaber, euskarazko egunerokoarekin zerikusia zuten hamar lagun atxilotu zituzten, tartean, Martxelo Otamendi. Hori dela eta, elkarretaratzea egin zuten atzo Andoingo Martin Ugalde parkean, itxiera salatu eta auzia behin betiko itxeko eskatuz. Han izan ziren besteak beste, EAJko, Batasunako, Aralarreko, ABko, ELAko, Kontseiluko, Lokarriko, AEKko, eta *Argia* aldizkari ordezkariek. HITZA

ADUNA ▶

Gazte bat atxilotu dute lapurreta egiteagatik

ERREDAKZIOA

20 urteko mutil gazte bat atxilotu zuen herenegun Ertzaintzak Villabonan, eskopeta batekin mehatxu eginez Adunako sagardotegi batean lapurreta egitea leporatuta.

Jauriaritzako Herriazango Sailak azaldu duenez, herenegun goizeko bederatzi eta erdiak aldera Adunako sagardotegi batetik deitu zieten, mutil gazte batek eskopetarekin mehatxu eginez dirua ostu ziela esanez.

ZIRI-ZIRI ▶
JOXEMI SAIZAR

Berrogei eguneko gosetea

Akabo haragikeriak, tri-pafesta eta gehiegikeriak! Garizuma iritsi da. Aratuztea. Berrogei eguneko gosetea. Oraintxe jarriko gara denok linean.

Eskualdeko txakur guztiak desagertarazten dituen txistorra jenez hasi genuen Ostegun Gizena eta Hausterrera iritsi gara, tartean nahiko pekatu eginda. Txerrikumea, arkumea, antxumea, oilasko eta klase guztiak animalia kumeak irentsi ditugu egun hauetan Getaria, Errioxa eta Astigarragako mama gozoez lagunduta. San Migelek ere kulpa pixka bat badauka. Bere garagar zuku magikoa eskuzabal banatu du inguru hauetan. (Noizko kristal arteko goizak desagertaraziko dituzten plastikozko botilak?) Alkohola dantzan ikusi dugu kale eta taberna zuloetan (Zerkausia eta Berdura plaza otorduetarako prestatzea ondo dago, baina horrela ez da boteloaia sustatzen?).

Piper opila, pastela eta era guztietako gozokien sobredosia izan dugu. Jai hauek aberastasunaren isla dira, baita mahaiaren inguruan ere. Ez dadila ezer falta! Jan eta edan lehertu arte, etxeetako ganbarak hustu arte. Ama Lurra esnatu dugu su, zarata eta oturuntzez josiriko jaiarekin. Negutea bizirik gaintu ondoren udaberri oparoa datorkigu. Gorputza berrogei egun luze hauek bizirik irauteko adinako energiaz hornitu dugu.

Gaurtik aurrera salda, batxurixopa, barazkiak, fruta, infusioak eta horrelako elikagai osasungarriak hartu beharko ditugu, konpentsatzeko. Eta pekatari guztiok eliz zuloetara, egindako pekatu aitoretzinentzat barkamena irabaztera, hauts salbatzailea jasotzera.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Tolosa. Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7.
943 670648.
Leitza. Plaza, M. Elbarren, 36. 112.

GORA ETA BEHERA ▶ ERREDAKZIOA

Azken eguna izanagatik, gogotsu!

Tolosako Inauteriak amaierara heldu dira azkenean. Gehientsuenek gogoz hartuko dute Hausterre Eguna, azken eguneko parrandak, saltoak eta dantzak eraginiko nekea eta ajea errekupeartzeko baliagarri izango baita. Dударik gabe, motz eta aldi berean luze suertatzen dira egun ero hauek. Haatik, tolosar eta kanpotar inauterizale guztiak indar guztiak ateratzen dituzte azken unera arte. Horren adibide argia ikusi genuen atzo. Pattar zezenaren irteeran ehunka lagunek egin zuten salto txarangen doinuaren atzetik hotzari eta nekeari aurre eginez. Gaur dute atseden hartzeko astia. I. GARCIA



Txikizioak, urteroko albiste

Ez da igaroko Inauteririk txikizioak gurean albiste izango ez direnik? Aurtengoan behintzat ez da hala izango. Gisa honetara topatu dugu edukiontzi hau, errekan botata, hain zuzen ere. Geltoki aldean aparkaturik zeuden hainbat autoetan ere txikizioak izan dira azken egunotan. Batzuentzat festa *bizitzeko* modu hau ez da ulergarria. Bakoitzak bere etxean egingo ez lukeena ez dezala kalean egin. Horrela gozatzen dutenei gur gaurko *Behera*. Ea datorren urtean ez den horrelakorik jazotzen. I. G.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Aiora Aranalde Ramiro.
Gaur 8 urte. Zorionak ebekoen partetik!



URTE ASKOAN
Iñaki (Amezketeta). Bihar zorionak guztien partetik! Batez ere Ibai eta Harkaitzek.



URTE ASKOAN
Haritz Martin Kortajarena (Zizurkil). Atzo 8 urte. 8 muxu handi ebekoen partetik.



URTE ASKOAN
Bixente Artola (Tolosa). Atzo 50 urte. Moxolo, aurten ere sagardotegira?

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker.
Urtebetetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza
agurren tarte